

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

508/2026 Erabakia, uztailaren 28koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 17ko 80/2026 Erabakiaren bidez deitutako elkarte eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntza lerroen ebazpenari

Foru Gobernu Kontseiluaren 80/2026, otsailaren 17koa, Erabakiaren bidez, onestu zen irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei zuzendutako dirulaguntza deialdia, garapen bidean dauden herrialdeetan urteko lankidetza ekintza puntualak egitea finantzatzeko 2026ko ekitaldian.

Deialdia 2026ko otsailaren 23ko 23. Zenbakiko ALHAOn argitaratu zen.

16 dirulaguntza eskaera jaso ziren eskaerak aurkezteko epearen barruan.

Aurkeztutako eskaerak eta haiei erantsitako dokumentazioa aztertutik, Arabako Foru Aldundiko garapen lankidetzarako arlo teknikoak txostenak eman zituen, eta laguntza balioesteko batzorde teknikoak izenpetu egin zituen. Bertan, aurkeztutako eskaera bakoitzari balioespen irizpideak aplikatu ondoren dagokion puntuazio osoa adierazten da, eta proposatzen da diru-laguntza aurkeztutako 11 erakunderi ematea, balioetsitako proiektuetarako, 163.201,50 euroko zenbatekoaz guztira.

Era berean, 5 eskaera ukatzea proposatzen da, deialdiaren hainbat alderdi ez betetzeagatik, ukatutako eskabideen eranskinean zehazten den bezala (II. eranskina).

Deialdia nola ebatziko den ezartzen duen hamabigarren artikuluan xedatutakoa kontuan hartu da.

Baliospen balorazio-batzordearen txostenak eta akta ikusi dira.

Aurrekoa ikusita, Berdintasun, Euskara eta Gobernantzako Diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaurko bilkuran aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei zuzendutako dirulaguntza lerroen deialdia, garapen bidean dauden herrialdeetan urteko lankidetza ekintza puntualak egitea finantzatzeko 2026ko ekitaldian.

Bigarrena. Erakundeei, I. eranskinean zerrendatzen diren proiektuetarako, guztira 163.201,50 euroko laguntza ematea, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko aurrekontuaren "25301. G/232252/48100264 Proiektu puntualen deialdia" partidaren kontura.

Hirugarrena. II. eranskinean adierazitako erakundeei zerrendatutako proiektuetarako laguntza ukatzea.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordaindu dezala emandako laguntzaren zenbatekoa, deialdian zehaztutako moduan.

Bosgarrena. Ebazpen hau jakinaraztea dirulaguntzak eskatu dituzten erakundeei.

Seigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko ebazpena eman duen organoari berari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua

IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria

JOANA DEL HOYO FERNÁNDEZ



I. ERANSKINA - ANEXO I									
SUBVENCIONES CONCEDIDAS - EMANDAKO DIRULAGUNTZAK									
ESPTA EXPTE.	ERAKUNDEA / ENTIDAD - BP	IFK / CIF	PROIEKTUA / PROYECTO	ESKATUTAKO ZENBATERKOA PRESUPUESTO SOLICITADO (euroak/euros)	DIRUZ LAGUNDU AHAL DEN AURREKONTUA PRESUPUESTO TOTAL SUBVENCIONABLE (euroak/euros)	NORBERAREN EKARPENA APORTE PROPIO (euroak/euros)	DIRULAGUNTZA SUBVENCIÓN (euroak/euros)	PUNTUAZIOA PUNTUACIÓN	
476 - 2026	KUPU KUPU BP 10006258	G01299247	Distribución de arroz entre familias de alta vulnerabilidad con personas con discapacidad, Bali	18.750,00	18.600,00	3.750,00	14.850,00	69,09%	
476 - 2026	Afrika Miniaturan BP 10006725	G01583640	Fortalecimiento de la autonomía y la participación política de las mujeres en Ndrom, Camerún	19.000,00	19.000,00	4.000,00	15.000,00	65,45%	
476 - 2026	Argia BP 10006370	G01400639	Mujeres jóvenes y adultas con mayor conciencia ante las consecuencias de las ITS, y el VIH, para el autocuidado de la salud sexual y reproductiva, Nicaragua	18.750,00	18.750,00	3.750,00	15.000,00	63,63%	
476 - 2026	Alianza Africa BP 10006695	G01573997	Dyan Labhoudhan Fih Lambawol y Darou (Agua limpia para Lambawol y Darou). "Fase II", Guinea	18.750,00	18.600,00	3.750,00	14.850,00	63,63%	
476 - 2026	ADECO BP 10310104	G48463756	Salud preventiva comunitaria con enfoque de género en Mejicanos, El Salvador.	18.400,00	18.400,00	3.750,00	14.650,00	63,63%	
476 - 2026	DocBeituha BP 10006673	G01565209	Telemedicina para la población refugiada saharauí	18.000,00	18.000,00	3.600,00	14.400,00	63,63%	
476 - 2026	Telimiele BP 10036250	G42870600	Equipar un pozo de agua segura para las mujeres y hombres de Kassagui, Fase II República de Guinea	18.749,70	18.749,70	3.749,70	15.000,00	61,81%	
476 - 2026	Asociación Mano sobre el Corazón BP 10310000	G10623643	Mejora y refuerzo de las capacidades pedagógicas mediante el equipamiento de una sala de informática inclusiva en el Centro de Reeducación, Camerún	18.750,00	18.675,00	3.735,00	14.940,00	61,81%	
476 - 2026	Kawral Fulbe BP 10309912	G06994297	Igualdad y protección de derechos humanos en educación-formación con "Rehabilitación y adecuación de aulas para alumnado", Senegal	19.130,00	19.135,00	4.135,00	15.000,00	60,00%	
476 - 2026	Jambo Congo BP 10006626	G01545656	Construcción de un aula de la escuela primaria Divin Maître en Mbuba (RDC)	18.149,64	18.149,64	3.629,93	14.519,71	54,54%	
476 - 2026	Emigrados Sin Fronteras BP 10007021	G95574505	Mantener de manera continua en el marco de la paz total, la protección y acompañamiento a personas líderes sociales y defensoras de los derechos humanos amenazadas y en riesgo de muerte en Colombia	18.807,35	18.807,35	3.815,56	14.991,79	54,54%	
							163.201,50		



II. Eranskina / Anexo II					
Ukatutako dirulaguntzak / Subvenciones denegadas					
ESPTA. / EXPDTE.	ERAKUNDEA / ENTIDAD	IFK / CIF	EZ ONARTZEKO ARRAZOA / MOTIVO DE INADMISIÓN		
476 - 2026	Asociación de Amigos de la Fundación Raíces y Sueños de Manabí	G24754640	Deialdiaren 4.a artikulua (Diru-laguntza eskatzeko baldintzak) ez betetzea / Incumplimiento del artículo 4.a (Requisitos para solicitar la subvención) de la convocatoria.		
476 - 2026	YORUBA	G01528330	Deialdiaren 3.a artikulua (Entitate onuradunak eta baztertuak) ez betetzea / Incumplimiento del artículo 3.a (Entidades beneficiarias y excluidas) de la convocatoria.		
476 - 2026	PRESTATURIK	G01355403	Deialdiaren 7.c eta e artikulua (Proiektuen betekizunak) ez betetzea / Incumplimiento del artículo artículo 7.c. y e. (Requisitos de los proyectos) de la convocatoria.		
476 - 2026	Amor sin barreras	G01579614	Deialdiaren 5. artikulua (Diruz lagun daitezkeen proiektuak) ez betetzea. Proiektuaren kalitate teknikoarekin zerikusia duten irizpideen blokea balioestean, gutxienez puntuen erdiak lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko. / Incumplimiento del artículo 5 (Proyectos Subvencionables) de la convocatoria. No serán objeto de subvención los proyectos que no alcancen un mínimo del 50 por ciento del total de la puntuación posible de la valoración correspondiente al bloque de criterios relacionados con la calidad técnica del proyecto.		
476 - 2026	Asociación Vasco Nigeriana ANNA	G01530914	Deialdiaren 5. artikulua (Diruz lagun daitezkeen proiektuak) ez betetzea . Genero ikuspegia / Incumplimiento del artículo 5 (Proyectos subvencionables) de la convocatoria. Perspectiva de género.		